

Euskal Herriko laborantza gida 1.0

2005eko uztaila

ADITUEN IRITZIAK

SUSTATZAILEA:



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

EGILEA:



LABORANTZA BIDE GURUTZEAN. ERAGILE ETA ADITUEN IRITZIAK

1. ADITUEN IRITZIEN BILA

Euskal Herriko laborantzari buruzko txostena osatzeko, hainbat elkarrizketa egin ditugu laborantzaren munduko eragileekin eta arloko adituekin. Prozesu horretan egindako elkarrizketetan, eraiki behar genituen tresnen¹ inguruan informazioa eta laguntza eskatzeaz gain, sektorearen inguruan zer iritzi duten galdetu diegu. Lau eremuri buruz eskatu diegu iritzia:

- Sektorearen ekoizpen eredua
- Sektorearen aukerak eta abantailak
- Sektorearen arriskuak eta ahuluneak
- Sektoreak iraun dezan eta gara dadin hartu beharreko neurriak

Jarraian datozen ideiak osatzeko lanean, nekazarien sindikatu eta kideak, biologoak, administrazio eta teknikariak eta unibertsitateko ikerlariak elkarrizketatu ditugu.

Ikerketaren diseinua egiterakoan, pertsona horiek elur bolaren teknikaren bidez elkarrizketatzea erabaki genuen. Gehiago zabalak *eredu produktibista* deitzen dutenarekiko ikuspegi kritikoa agertu du. Jabetzen gara, beste aditu batzuk hautatu izan bagenu edo metodologia bestela diseinatu izan bagenu, bestelako iritzia jaso izango gintuzketela, baina jasotakoa bere horretan aski aberatsa delakoan eskaintzen dizuegu. Adituen artean agertu diren desadostasunak adierazten ahalegindu gara. Ideia batzuk, ordea, guztien ahotan errepikatu dira. Azken horiei erreparatu diegu gehienbat.

Dokumentu honetan, ideia eta iritzi horien sintesi bat aurkezten dugu.


2. SEKTOREAREN EKOIZPEN EREDUA

Euskal Herriko nekazaritza askotarikoa da: mendiko nekazaritza eta lautadakoa, abeltzaintza eta laboreak, Atlantikoko eta Mediterraneoko isurialdeetakoak, hiri inguruko nekazaritza eta landa gunekoa, eta abar. Hala ere, oro har, bi eredu agertu dira: batetik, gaur egun indarrean dagoen eredu produktibista, zeina hainbat eragilek sustatzen baitute, eta, bestetik, oso definitua ez dagoen arren, naturaren eta sektorearen iraunkortasuna ez ezik, laborarien interesak eta beharrak ere aintzat hartuko litzuzkeen eredu.

Elkarrizketatu ditugun adituen arabera, administrazio publikoek gaur egun erabiltzen dituzten nekazaritza politikek eredu produktibista bultzatzen dute. Eredu horretan, adituen iritziak, ustiapen handiek eta laborantzako elikagaien industria handiek soilik dute lekua. Administrazioen diru laguntzak eredu hori hobesten duten eragileetara bideratzen ari direla salatu dute aditu gehienek. Izan da, ordea, indarrean dagoen eredu defentista duenik ere, hainbestera arriskurik ikusten ez diolako. Aitzitik, aditu gehienek uste dute eredu produktibista ez dela iraunkorra. Arrazoiaren artean esanguratsuenak, agian, honako bi hauek dira: ez du naturarekiko begirunerik eta laborarien bizi-baldintzak eskasten ditu. Aditu horien iritziak, nekazari asko joko horretan sartzen ari dira; ustiapenak handitzeko joera indar hartzen ari da, modu horretan diru laguntzak jasotzeko aukera gehiago ematen baititu. Azkenean, lan zama areagotu egiten dute eta, gainera, maiz etekinak ez dira handiagoak izaten. Adituen arabera, hortaz, ustiapena handitzeak ez du ekartzen derrigorrez etekina areagotzea.

¹ Adituen laguntza baliagarria gertatu zaigu gida honetako zenbait katalogo eta datu base eratzerakoan. Ikus www.gaindegia.org-en eta www.datutaldea.net-en bildutako datuak eta dokumentazioa.

1. Euskal Herriko Nekazaritzan eragina duten eragile garrantzitsuenen mapa (elkarrizketatu ditugun adituen iritzien arabera)




Iturria: Adituen iritziak. Aztikerrek egina.

Horren aurrean, iraunkorragoa izan daitekeen beste eredu baten alde egiten dute eragile gehienek. Naturekiko begirunean oinarritu eta, aldi berean, laborarien interesak aintzat hartuko litzkeen ereduaren alde. *Elikadura burujabetza, Laborantza integratua* eta antzeko argudioak erabili dituzte. Burujabetzari eutsiko dion nekazaritzaren beharra azpimarratzen dute eredu horren aldekoek. Nekazariak lantzen dituen lurrek ematen duten autonomiatik bizi behar luke, eta, aldi berean, lurra norberarena izan arren guztion ondasuna ere badenez, modu horretan zaindu eta herriaren zerbitzura landu beharko litzateke. Ereduak ezberdinak izan daitezkeela esaten dute, bakoitzaren luraren eta inguruaren arabera: hala ere, kapitalaren, luraren eta eskulanaren arteko oreka bermatu beharra ezinbestekotzat dute (gaur egun kapitalaren alde desorekatzen ari da, eta horrek asko zailtzen du gazteak laborantzan hastea). Input gutxi eta lanpostu askotan oinarrituko den nekazaritza, ekoizpenaren kontzentrazioari aurre egingo diona eta garrantzi ekonomiko eta sozialari eutsiko diona. Kalitatezko ekoizpena eta kate laburreko merkaturatze bideak landuko dituena. Etxalde txikiagoen alde egiten dute, bezeroekiko harreman zuzena bermatuko duen ereduaren alde, ekoizleak salneurrietan eragin handiagoa izan dezan.

Ereduen inguruko gogoetekin amaitzeko, adituen iritziz, egun nekazaritzan eragina duten eragileen arteko antolaketa aldatu egin beharko litzateke (gaur egun, laborantzako elikagaien industriak nekazaritzan pisu izugarria daukalakoan). Eredu iraunkor batek, esaterako, ezingo luke jarri muinean edo erdian laborantzako elikagaien industria; adituen iritziz, laborariek egon beharko lukete erdian. Gaur egun horrela ez den arren, adituen ikuspegiaren arabera, honako hau litzateke mapa aproposa:

2. Euskal Herriko Nekazaritzan eragina duten eragile garrantzitsuenek nola antolatu beharko luketen (elkarrizketatutako adituen iritzia)



Iturria: Adituen iritzia. Aztikerrek egina.

3. SEKTOREAREN AUKERAK ETA ABANTAILAK

Euskal Herriko laborantzak dituen abantailez hitz egiterakoan, orografia nabarmendu dute adituek. Euskal Herrian dauden ibar, lautada eta mendialdeek nekazaritza eta abeltzaintza mota ugari garatzeko aukerak ematen dituztela jakinarazi dute.

Euskal laborariek duten antolakuntza ona ere aipatu dute aditu batzuek abantailen artean. Asko dira Euskal Herrian dauden elkarte, sindikatu eta eragileak, eta horien bitartez administrazioak bultzatzen duen ereduari aurre egiten zaiola diote.

Ingurunearen kudeaketa egokia bermatzeko bermetzat dute nekazarien lana.

Zenbait lan dinamika tradizional gaur egun ere oso aproposak direla aipatu dute adituek. Lan dinamika horiek ez dira, hala ere, Euskal Herrian bakarrik erabiltzen.

Euskal Herriko lurraldeen arteko osagarritasuna ere azpimarratu dute. Ekoizpen merkatua askotarikoa da, eta elkar osa dezakete: zereala, lastoa, laboreak eta abeltzaintza, iparraldea eta hegoaldea.

Horiez gain, batzuentzat abantaila da Euskal Herriko zenbait lekutan bultzatzen den eredu. Eredu hori, batez ere, Ipar Euskal Herriko hainbat lekutan dago indarrean, eta laborarien beharretara atxikia dago. Eredu horren oinarria etxalde eta ustiapen txikiak dira. Salmenta zuzena sustatzen du. Ipar Euskal Herriko joera horretan, Frantziako Estatuko *agrarismoa* izenekoa sumatzen dela diote zenbait adituk.

Azkenik, kalitatea aipatu dute. Euskal Herrian hainbat laborarik kalitatezko produktuak ekoizteko duten konpromisoa azpimarratu dute zenbaitzuek. Kalitatea lortzeko ahalegin hori indartu egin beharko litzateke, haien ustez, eta gaur egungo label eta jatorri izen edo sor-markak gaintitu.

4. SEKTOREAREN ARRISKUAK ETA AHULUNEAK

Euskal Herriko laborantza bidegurutzean dagoela esaten dute adituek. Orain indartzen eta bultzatzen den ereduak hainbat arrisku dituela nabarmentzen dute.

Sektoreak industrializazioarako eta merkantilizazioarako joera du. Laborantza elikagaien industria gero eta pisu handiagoa hartzen ari da sektorean. Horrek ekoizpena deslokalizatzea eragin du maiz, adituen ustez. Nekazaritzako elikagaien industriak, etekinak lortzea eta etengabe handitzea duenez helburu, merkaturatutako produktuak sarri Euskal Herri kanpotik ekartzeko joera du. Aipagarriak dira, besteak beste, Arabako patataren edo Nafarroako zainzuriaren kasuak. Administrazioa ustiapen handiak sustatzen ari da, modu horretan produktuak merkatuko direlakoan. Batetik, Administrazioak sustatutako heziketa, ikerketa eta garapena eredu produktibista bultzatzera bideratua dago. Bestetik, diru laguntzak ustiapen handietara bideratzen dituzte eta, beraz, eredu produktibista indartzen dute, eta, aldi berean, eredu iraunkorragoak garatzeko aukerak baztertzen. Administrazioaren laguntzak jaso ahal izateko, ustiapen txiki ugari handitzen ari dira, baina, hazkunde horren ondorioz, lan zama areagotu egiten da eta, gehienetan, laborarien bizi-kalitatea eskatu egin ohi da. Halaber, gero eta soldatapeko postu gehiago dago. Horietako askok, gainera, baldintza kaskarretan egiten dute lan. Ustiategi handien ugaritzeak soldatapeko langileen beharra areagotu du lehen sektorean eta, oro har, lan hori egiteko baldintzak asko txartu dira. Ustiapen txikiak, berriz, gero eta zailtasun handiagoak dituzte irauteko, ez baitaukate aukerarik ustiapen handiek eskaintzen dituzten salneurriekin lehiatzeko; industriak oso salneurri apalak ordaintzen ditu. Egoera hori ikusita, gero eta gazte gutxiagok segitu nahi dute laborantzan. Etxalde handietan lan zama gero eta handiagoa da, eta ustiapen txikietan, aldiz, errentagarritasuna oso eskasa. Beraz, etxalde ugari kolokan gelditzen ari dira.

Osasun eta higie baldintzek eraldaketa eta salmenta zuzena zailtzen dute. Tradizioa egon arren, salmenta eredu hori gainbehera doa. Esaterako, asteroko azokak atzeraldi nabarmenean daudela adierazi dute. Fenomeno hori kontsumo eta bizi ereduaren aldaketei lotuta dago, adituen iritziz.

Batez besteko ekoizpen kostuak inguruko zonaldeetan baino handiagoak dira.

Ustiategi handiak areagotuta, arazo berriak sortzen dira, purinena, adibidez. Administrazioak horren aurrean hartu duen jarrera kritikatu dute elkarrizketatu ditugun adituek. Haien iritziz, administrazioa ez da saiatzen halako arazoak konpontzen; *disfuntzio* horiek eredu produktibistan nola integratu asmatzea da haien kezka. Eredua, ordea, ez dute inola ere zalantzan jartzen.

Lurra da sektorearen oinarrietako bat. Aditu batzuk kezkatuta daude azkenaldian Euskal Herrian eraikitzen ari diren etxebizitza eta egitura erraldoi pilarekin. Beren ustetan, prozesu horrek nekazaritzarako lurzorua murriztea ekarriko du. Arazo horrek okerrera egingo duela ematen du. Euskal Herriko hainbat zonaldeetako lurralde egitasmoei erreparatuz gero, ikus daiteke egitasmo horien helburuetako bat laborantza eremuetako herriak handitzea dela, nekazaritzarako erabilgarriak diren lurretan etxebizitzak eta azpiegiturak eraikiz. Beraz, lurren antolaketa ez da egokia: nekazaritzarako lurren falta aipatzen dute batzuek. Gainera, lurren salneurriekin sekulako espekulazioa dagoela salatzen dute.

Era berean, jendarteak laborantzari buruz duen informazio eskasa eta ikuspegi mugatua aipatu dituzte adituek. Laborari ugari ere bere lanari buruzko iritziz eskasa dauka. Arazo hori traba garrantzitsua da laborantzak bizirik irauteko eta garatu ahal izateko. Adituek diotenaren arabera, jendarteak ez du aintzat hartzen laborarien lana. Jendarteak ez du ikusten nekazarien lanak eragin handia duela laborantza eremuko guneak txukun edukitzeko orduan. Nekazaritzarik eta abeltzaintzarik ez balego, ziurrenik, Euskal Herriko lautadak eta mendiak sasiz beteko lirateke. Jendeak horren kontzientzia izango balu, laborantzaren garrantziaz arduratuko litzateke, eta Euskal Herriko laborantzaren iraupena bermatzea errazagoa litzateke. Gaur egun, adituen esanetan, jendartean oso zabaldua dago laborariak diru laguntzei esker bizi direla. Funtsezkoa deritzote ideia hori gainditu eta laborantzaren garrantziaz jabetzeari.

Azkenik, Euskal Herri osorako erakundeek falta aipatu dute adituek. Euskal Herria bere osoan aintzat hartzen duen administraziorik ez egoteak Euskal Herriko laborantzari mesede eskasa egiten diola diote. Gainera, gaur egun dauden erakundeek eredu produktibista bultzatzen dute, adituen iritziz.

5. NEURRIAK

Euskal Herriko laborantzak iraun dezan hartu beharreko neurriei buruz ere galdetu diegu elkarrizketatuei.

Gehienek eredia aldatu behar dela adierazi dute. Euskal Herriak bere eredia behar du, adituen ustez. Hori gauzatzeko, beharrezkoak diren neurriak abiarazi behar direla esaten dute. Eredu horrek iraunkorra izan behar luke naturaren ikuspegitik. Aldi berean, Euskal Herriko merkatuen beharrei erantzutera zuzendu beharko luke. Lan-baldintzei dagokienez, enplegu duina sortu behar luke, nekazaritza eremuetan soldatapeko gero eta langile gehiago daudelako eta gero eta egoera txarragoetan lan egiten dutelako. Laborarien lana egoki ordaindu ahal izateko, salneurri aproposak behar dira eta, ondorioz, banaketa eta merkaturatze politikak era egokian egin behar dira. Baina, aldi berean, laborantzaren industrializazioari eta merkantilizazioari mugak jarri behar zaizkio. Nekazaritza produktuen ekoizpenari behar duen garrantzia eman behar zaio, eta ez elikagai industriaren ikuspegia sustatu. Beharrezkoa litzateke, hortaz, laborantzaren zenbait esparru merkatuaren logikatik ateratzea, eta, liberalismoaren lehiakortasunaren gainetik, helburu sozialak betetzeko modua emango duen eredia bultzatzea.

Eredu berria sustatze aldera, adituek honako neurriak proposatu dituzte:

- Eredu iraunkorrako bati laguntzak eman behar litzazkioke. Diru laguntzen banaketa aproposagoa egitea beharrezkoa da, eredu iraunkorra jorratzen duten etxaldeeiei emanez lehentasuna eta ez ustiapen handiei.
- Nekazaritzako elikagaien industriari beharrezko neurriak ezarri beharko litzazkioke, ekoizpena lehenetsiz eta banaketa eta merkaturatzea bigarren mailan jarritz.
- Salmenta zuzena indartu behar litzateke. Hori errazteko, tokiko merkatuak sustatzea komeni da.
- Ekoizle-eraldatzailerantz eta ekoizle-saltzailerantz osasun baldintza bereziak landu beharra dago. Ez dute bidezkotzat jotzen industria handien lege berdinekin lan egin beharra, arriskuak ezberdinak direnean.
- Nekazaritza politika zehazterakoan, nekazarien eta kontsumitzaileen hitzak izan behar du garrantzia.
- Lurralde antolaketa zehatza eta egokia egin, nekazaritzako lurren defentsan, salneurria arautu, eta nekazaritzan hasi nahi duten gazteentzat eskuragarri jarri.

- Euskal Herriko produktuen kontsumoa sustatu beharko litzateke. Horretarako, benetako kalitatea indartzea beharrezkoa da.
- Laborarien bizi-kalitatea hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke: oporrak hartzeko aukera eman, astean zehar atseden hartzeko aukera bermatu eta abar.
- Etxaldean jarraipena ziurtatzeko eta lanpostu duinei eusteko eta halakoak sortzeko laguntzak eta egitasmoak eskaini beharko lirateke. Esaterako, jarduera uztear dauden baserrietako nekazarien eta baserririk eduki gabe sektorean lan egin nahi duten gazteen arteko zubiak eraiki behar dira. Zerga alorreko neurriak hartu behar dira eta diru publikoa inbertitu behar da nekazaritza gaztetu dadin. Gaur egun, EAEko administrazioak abiarazi duen *Gazte Planak* ez dio arazoari sakontasunez erantzuten.
- Jendartea laborantzaren garrantziaz jabetzea derrigorrezkoa da.
- Ekologiari bere tokia eman beharko litzaioke.